

Semblanteren Aste kulturala hasi zen atzo

Semblante Andaluz elkartearen kultur asteari hasiera eman zitzaion atzo. Elkarteko agintari eta bazkideek, zein Ana Urchueguia Lasarte-Oriako alkatesak andaluziar produktu tipikoen dastaketa, luncha eta ohorezko ardoa hartu zuten. Era berean, *Y parece que fue ayer* argazki erakusketa ere zabaldu zuten, zein urriaren 19ra arte ikusgai egongo den elkartean.

Egitaraua

Haurrentzako eta helduentzako lehiaketak, hitzaldiak eta kantua izango dira nagusi igandera arte iraungo duen VI. Aste kultural honetan.

Gaur mahai jokoak hasten dira elkartean, 18:00etan mus txapelketa eta bihar ordu berean tute txapelketa.

Asteazkenean, haurrentzako marrazki lehiaketari hasiera emango zaio, gaia Eguberrietako motiboak izango da. 18:30etan Potora tiratzeko lehiaketa dago eta 19:00etan haurrentzako Patxin eta Pastin pailazoan saioa.

Ostegunean, 17:30etan hasiko da patata tortillen lehiaketa, 19:00etan Marmier doktoreak bizkarreko arazoei

buruzko hitzaldia emango du eta 20:00etan patata tortillen lehiaketako tortilla irabazlea aukeratu da eta gero guztiak dastatu ahal dira.

Haurrentzako marrazki lehiaketaren irabazleen izenak emango dituzte ostiralean 18:00etan, ostean txokolata jan bikaina egongo da bertarazten diren haur guztiarentzat. 19:30etan Andaluziar gaiei buruzko hitzaldia eskainiko du Antonio Pedraza elkarteko presidentek.

Larunbatean, 13:00etan ardo eta salda gozosa egongo da bazkide eta gonbidatuentzat eta 18:00etan *A mi aire* taldearen emanaldia.

Eta igandean, 14:30ean, herri-bazkaria antolatu dute elkartean; 17:00etan, astean zehar jokatu diren txapelketen trofeoan banaketa gauzatu da; 18:00etan, Rafael Gomezek flamenkoari buruzko hitzaldia eskainiko du, eta kantuan Jose "de Pasaia" egongo da Rafael Jimenezen laguntzaz.

Eta VI. Aste Kulturalari amaiera emateko, 20:00etan salbe rozieroa eskainiko zaio elkarteko amabitxiari, Rozioko Amabirginari. •



Produktu tipikoak dastatu eta erosi ahal izan zituzten egoitzara gerturatu zirenek, baita *Y parece que fue ayer* ikusi ere.

GIZARTEA ■ 4
Postetxeak Euskal Herriko herri kirolen inguruan zigiluak egin ditu lehenengo aldiz



Lasarte-Oria Bai! XIII. Kros herrikoia aurkeztu zuten larunbatean /6



Sagardogintzari lotutako musika tresnak ezagutzeko Arizkunera /2



ASEGURUAK
Ges

Kalitatezko zerbitzua da gure lanaren arrazoia

- Etxeko aseguruak
- Kotxeak
- Dendak
- Istripuak
- Erretiroak
- Enpresak
- Bizitza-aseguruak...

7. Maratoiarekin euskara aurrera!



Kirikoketaren sustraien bila Arizkunen

■ Sagardogintzari lotutako musika tresna ezagutzeko bisita egin du Ttakunek. ■ Euskararen VII. Maratoian Herriko Sagardotegietara Bira eta kirikoketa emanaldia antolatuko dituzte. ■ Baztanen duela 300 bat urte sagardoa nola egiten zen ikusteko aukera izan zuten.

Jon ALTUNA

Ttakun Kultur Elkarteko kide batzuk Arizkunen izan dira Nafarroako Baztan bailararen barrenean XVIII. mendeko dolarea eta Kirikoketa zuzen zuzenean ezagutzeko. Ez da oso ezaguna lan jardunari, sagardogintzari, lotutako perkusio musika tresna tradizional hau eta Lasarte-Oriako taldea sustraietara abiatu da hain juxtu, gorde den tokira, Arizkun herrira. Duela mende batzuetako ohiturak berriro bizitzeko aukera izan zuten bisitariek Gamiozarrea etxean.

Lasarte-Oriako lau txalapartari, batukada taldeko hiru partaide, perkusio, pandero eta soinu-jolea, Ttakuneko langilea eta zuzendaritzako ordezkaria, Oñatz taldeko kideak, eta besteak beste lau solaskide, guztira ia 20 laguneko taldea abiatu zen Arizkuner Kirikoketa ezagutzera. Jakina da, euskal kultura ikertu dutenen tesi nagusiek hori diote, aitzina Euskal Herrian, lanetik jolasera eta festara jotzeko ohitura zutela, lanak bukatu eta gero festa egiten zela eta askotan lanean ari zirela ere bai: solasa, jolasa, erritmoak eta musika bazirela. Horren adibideak ugari dira eta bat kirikoketa izan daiteke, lan tresnak musika tresna bihurtzen ziren: sagarrak jotzeko eta txikitzeko erabiltzen zituzten mazak edo pisiak, eta azpiko ohola edo patsola, jolaserako eta musika egiteko tresna bilakatzen ziren. Lanean ere erritmoak erabiliz lana erosoagoa egingo zitzaizkien oski. Batzutan, dolarea prestatzeko erabiltzen ziren egurrezko mailuak ere soinu ateratzeko erabiltzen zituzten, musika jotzeko alegia.

Aurreko igandean Arizkungo Gamiozarrea bisitan izan zen Mailu Arrutik kontatu digunez, joan etorriaren ideia herriko sagardogintzaren inguruko datu bilketatik sortu zen. Lasarte-Oriako 7. maratoia dela eta, Ttakun-ek herriaren sagardogintzak izan zuten pisua gogoratu nahi du eta besteak beste sagardotegietako jira antolatuko du, hau da, sagardoa egiten zen etxeetan ahar ibilaldia. Gaia jorratu dutenekin harremanetan jarri eta jakin dute herriaren bazirela 30 bat sagardogile. Horien mapa ere egina da. Garai batean bazkal aurretik pitxarra



Kirikoketa eta txalaparta jo zituzten Arizkun eta Lasarte-Oriakoek Gamiozarrea etxearen kanpo aldean.

hartu eta sagardo bila etxe hauetara joateko ohitura bazen herrian.

Herriko sagardogileen datuak biltzen ari zirela, Arizkungo Kirikoketaren berri izan eta irteera antolatu dute. Arizkunen, sagardoaren prozesua modu tradizionalan ikusteko aukera izan zuten, sagarrak mazakin txikitu, zapaldu eta muztioa atera arte. Gero hori kupeletan gorde eta irakin egin behar du sagardo bihurtzeko.

Dolarea zaharberritzen

Arizkungo Jo ala Jo taldea Gamexarreko dolare zaharra berritzen ari da. Hori da behintzat bere asmoa. Momentuz konponketa batzuek egin dituzte euren poltsikotik. XVIII. mendeko dolare zaharra orduan bezala mantentzeko berritzailean beti ere ohol zaharrak erabili dituzte. Barroko berantiarra garaikoa dela uste da. Dolare zaharra harrizkoa da, alde bakoitzean harlauza bakarra du, lau guztira. Lasarte-oriarrekin bertan antzina sagardoa nola egiten zuten ikusi zuten. Azaroaren Tean berriro egingo



Pozik itzuli zen herriko taldea Nafarroako Baztan bailarara egindako bisitatik.

dute sagardoa dolare honetan. Aurreko bi urtetan ere egin dute kirikoketan festa eta sagardoa duela 300 urteko erara.

Bisitariek kirikoketa zer den ezagutu zuten ondoren. "Kirikoketa, kirikoketa, kirikoketa, koketa, koketa, sagarra jo dela, sagarra jo dela, sagarra jo dela, jo dela, jo dela..." da erritmo edo abestiarekin esaten zen letra. Kirikoketa hitzak musikalutasuna du, onomatopeia dela esan daiteke. Sagardoa

egiten bukatu eta ondorengo festan lanerako tresnak erabiltzen zituzten, erritmo ezberdinak sortzeko. Lanean ere doinuekin jolas egiten zutela uste da, goizetik gauera sagarra zanpatzen erritmo handiaz aritu behar zirenez, ez aspertzeko erremintarekin jolas egiten zutela eta orduan sortutako erritmoak gorde direla uste da. Txalapartaren anaiak dira beraz Arizkungo herriaren gorde diren letra eta erritmoak.

Arizkungoek erakustaldia

egin zioten lasarteoriarrei. Sagardotegi kanpokaldean patsolak lurrian jarri eta jo egiten dute, normalean hiru lagunek, gutxi gorabehera metro terdiko altuera duten mazakin. Beheko partean zabaldu egiten den makila da hau. Apur bat altxatu eta lurrian jarritako patsola joz sortzen zituzten erritmoak. Txalapartari bikainak direla ere erakutsi zuten Arizkungoek.

Bazkalosteko saioa

Ondoren, Arizkun eta Lasarte-Oriako koadrilak denak elkarrekin bazkaldu zuten herriko ostatuan eta ohikoa denez, kafearen ostean berriro kantutak, trikitiaren doinuak eta txalaparta soinuak nagusitu ziren.

Hango eta hemengo txalapartarien saioaz gozatu eta pozik itzuli ziren herritarrak, dolarea ikusi eta kirikoketa ezagutzeko helburua beteta. Bertan izan zirenek adierazi digutenez, egun pasa bikaina izan zen eta Baztan aldeko hizkera entzutearekin soilik gozatu ederra hartu zuten gehienek. •

Kelan enpresak aurkeztutako enplegu-erregulazio espedientea onartua

■ Kelaneko bederatzia langileri eragingo die Lan Delegaritzak onartu duen espedientea

TXINTXARRI

LAB sindikatutik jakinarazi digutenez, uztaila bukaeran Lasarte-Oriako Kelan Elektronika S.A. enpresak aurkeztutako enplegu-erregulazio espedienteari baiezkoa eman dio Lan Delegaritzak.

Urriaren 1a izan zen proposamena onartu zen eguna eta aste horretan bertan hasi ziren laneko egoera berriekin, aste horretan hiru egunetan bakarrik egin zuten lan.

Proposamen horren arabera aste barruko 5 egunetarik 3tan lanean eta beste 2tan langabezia erongo lirateke langileak bederatzia hilabetetan zehar.

Hala ere, eskatutako bederatzia hilabeteak gehiegizkoak iruditu zaizkie teknikoei eta hauek hala erabakita sei hilabeteko epean erongo dira langileak egoera honetan.

Espedientea enpresaren azken hilabeteotako produktzioaren jaitsieragatik aurkeztu zen. Neurri hauek hartuta enpresak aurreztuko duelokan eta egoera hobetuko delakoa onartu da proposamena.

Etorkizuna kolokan

Sei hilabeteak igarota egoeraren azterketa egingo da eta enpresak beste espediente bat

aurkeztuko du emaitzen arabera. Epe horren luzapena eskatu dezake espediente berri horretan edo langile batzuen kaleratzea.

Enpresak martxan irauteko langileak behar ditu, horregatik kaleratzea litzateke gutziena izango baina posible da batzuk lana galtzea.

Langileak

Hamabi langile dira guztira Kelanen eta neurri honek bederatzirengan eragingo du.

Kelaneko langileek aho batez ezezkoa eman zioten espedienteari, sindikatuarean esanetan enpresaren kontuak erabat saneatuak daude eta gastuei aurre egiteko ez dute inolako arazorik.

Enpresaren helburua aurrezteko bada langileei eragingo ez dien eta gastuak jaisteko beste hamaika neurri hartu ditzaketela argudiatzen dute LABetik eta enpresaren kontabilitateari begiratuz gero neurri gabeko hainbat gastu antzeman dituztela esan dute, batzuk euren interes pertsonala asetzeko erabiliak.

Kalteak

Neurri hau langileen kaltean izango da. Alde batetik hileko soldata %15 eta 20a



Kelan enpresan guztira hamabi langile dira, eta erregulazioak bederatziri eragingo die.

bitarte jaitsiko zaie eta bestetik langabezia prestazioan era negatiboan eragingo die, zeren eta ondoren langabezia geratzen badira, orain arte sorturikoa edo gero sortuko dutenaren

artean aukeratu beharko baitute langileek.

Lehen aukeran zati bat gastatuta izango dute eta bigarrenaren gutxiago izango dute sortuta.

LABek gogor salatzen

du Lan Delegaritzak instituzio publiko bat izanik langileak babesik gabe utzi izana enpresaren interesak bakarrik defendatzen dituen enplegu erregulazioa onartzean. •

Tomas Fernandez VII. Argazki-rallya

Lasarte-Oriako Udalaren Gazteriako eta Festetako Batzordeak Tomas Fernandez VII. Argazki-Rallya antolatu du urriaren 23tik 27ra.

Lasarte-Oriako udalerrin barruan bakarrik igaroko den lehiaketa da argazki rallya eta partehartzeko baldintza nagusia, kamera digitala edo irudien gordailu-sistema edozein motatako memoria-txartela duen kamera izatea da.

Manuel Lekuona Kulturetxean urriaren 23an 19:00etan, hau da, lehiaketaren hasieran emango zaie jakitera lehiakideei argazki rallyaren gaia eta hau bakarria izango da.

Honela, argazkizaleak bi kategoriatan lehiatuko dira, bata A kategorian 16 urte artekoak eta bestea B kategorian 17 urtetik gorakoak.

Argazkien aurkezpena

Urriaren 27ko 19:00ak baino lehen aurkeztu beharko dute lehiaketari kameraren txartela, Etxarri argazki dendan. Txartelak parte-hartzailerako bakoitzak hautatutako hiru argazki bakarrik eduki beharko ditu.

Argazkiei dagokienez, jpg formatuan aurkeztuko dira, konpresio minimoarekin, kalitate maximoarekin eta 3 megapixelko erresoluzio minimoarekin. Antolatzaileek azaldu dutenez, kalitate maximoa eskatzen da, zeren, obrak sarituak edo hautatuak gertatuz gero, paperean erreproduzitzeko baitira erakusketarako.

Era berean, jakin arazi dute ez direla erantzule egingo baldin eta materiala galtzen edo hondatzen bada manipulatzeko edo garraiatzen den bitartean,



ezta rallya egiten den bitartean matxurarik, lapurretarik edo galerarik gertatzen bada ere.

Sariak eta inskripzioa

Bi kategorietako bilduma hoberekin eta argazki hoberekin lortuko dute saria. Beraz, A kategorian bilduma hoberekin 100 euroko saria eskuratuko du eta argazki hoberekin 70 euro; B kategorian, aldiz, bilduma hoberekin irabazleak 300 euro eta trofeoa izan-

go ditu eta argazki hoberekin 200 euro eta trofeoa. Hala ere, sariak esleitu gabeak deklaratu ahaliko direla ere jakin arazten dute antolatzaileek.

Inskripzioa dohainekoa da eta urriaren 21era arte egin ahal izango da Kulturetxeko Gazteentzako Informazio-Bulegoan, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Nahi duenak, telefonoz ere egin ahaliko du izena ematea 943 376 181 zenbakira deituz. •

ESKREN BALORAZIOA

Elkarrekin ahal dugu: Michelin adibide

ESK sindikatuak bultzatuta, Enpresa Komiteak Michelin lan-tegiko atezaintzan konzentrazioa deitu zituen urriren 7an langileak. Helburua 65 orduko direktibaren aurkako eta lan duin baten aldeko mobilizazio mundialarekin bat egitea. Txanda desberdinetako langileak bildu ziren bertan eta, horregatik, Michelin salbuespen positiboa izan zen.

ESKren irakurketa sindikatuak batera lan egitean emaitzak beti positiboak direla eta mobilizazioan langileen partehartzea gauzak aldatzeko baldintzak zeintzuk diren erakutsi zituela da. Sektarismoak frustrazioa eta atsekabea sortzen ditu eta, horregatik, ESKren ustez, hau ekintza sindikal suizida izango litzateke krisiaren larritasuna eta honek langileengan izan ditzakeen ondorioak kontuan izanik. •

Heliodoro Rojo / Buruntza Filatelia eta Numismatika elkarteko lehendakaria

‘Filatelia eta numismatika galtzear dagoen zaletasuna dela uste dut’

Lehen aldia da postetxeak Euskal Herriko herri kirolen inguruan seiluak egin dituela eta honen berri Heliodoro Rojok, Buruntza Filatelia eta Numismatika Elkarteko lehendakariak, eman digu. “Postetxeak herri kirolen inguruan seilu batzuk atera ditu aurretik, baina lehen aldia da Euskal Herriko herri kirolei buruz ateratzen dituela. Jendeak seiluen bila-kaera jarraitzen ez duen arren, iruditu zaigu, interesgarria litzatekeela jendeari honen berri ematea”.

Buruntza Filatelia eta Numismatika Elkarteak duela bi urte ospatu zituen Zilarrezko Ezteiak. 1981eko apirillean Lasarte-Oria Filatelia eta Numismatika Elkartearen izenarekin egin zituzten lehenengo estatutuak. Baina, zazpi urte beranduago, legeak behartuta, elkarteari izena aldatu zioten. Beraz, Buruntza Filatelia eta Numismatika elkartearen izena jartzea erabaki zuten Heliodoro Rojo elkarteko lehendakariak azaldu digunez: "izena aldatzerakoan zigilua ere aldatu behar izan genuen. Elkarteko kideek erabaki genuen hasierako zigilua mantentzea eta erdian Buruntza izena jarri genuen. Baina, zigiluak badu berezitasun bat, zigilua erditik moztzen duen bandak Buruntza mendiairen perfila irudikatzen du".

Gero eta bazkide gutxiago

Elkartearen lehendabiziko urteak oparoenak izan ziren, izan ere, urte haietan 120 bazkide izatera iritsi ziren, egun berriz, berrogeita hamar bat daude. Lehen igandero elkartzan ziren zigiluak eta txanponak trukatzeko eta filatelia eta numismatika munduko nobedadeei buruz hitz egiteko. Egun, berriz, hileko lehen eta bigarren igandeetan elkartzan dira soilik, 11:00etatik 13:00etara: "Donostiako elkarteak 1000 bazkidetik gora izatetik, egun 300 inguru izango dira. Gure elkartean bazkide kopurua ere erdira jaitsi da. Mundu honetan gabiltzanok zaharrak gara eta gazteei ez zaie ez gustatzen ezta interesatzen ere. Beraz,



galtzear dagoen zaletasuna dela esan dezakegu”, kontatzen du Heliodorok.

Internetak ez du asko laguntzen

Lehen bazkideen arteko trukean aritzen ziren eta modu horretan bilduma osoak osatzea errazagoa zen. “Egun, eskutitz gutxi idazten da eta postetxeetan gero eta makina gehiago sartzen ari dira. Zaila

da bilduma bat egitea. Internetak jakiteko zer dagoen laguntzen digu, baina ez dago aukera handirik seiluak lortzeko. Ez dago lehen zegoen mugimendua”, gogoan du elkarteko lehendakariak, “Madrilen eta Bartzelonan izugarritzko azokak egiten dituzte eta hor bai aukera izaten dela txanponak eta zigiluak lortzeko”.

Gaur egun, txanponak eta

zigiluak katalogo bidez jasotzen dituzte. Garai berrietara egokitu beharra dago, eta Filatelia eta Numismatika elkarteak aldizkari espezializatuetako harpidetzak eginak dituzte.

Umeen edo zoroen zaletasuna ote?

Bildumen inguruan galdetu diogunean Heliodorori parrez hasi da, “jendeak uste du

umeen joko bat dela edo zoroen zaletasun bat. Baina, zaletasun honekin bildumak osatzeaz gain, asko ikasten da. Seilu bakoitzak bere historia eta azalpena du, entziklopedia txikiak dira. Adibidez, karnabaren seiluaren azalpenak esaten dizu txori hau non hazten den, zein espezie-takoa den, non egiten duen abia, inmigrazio garaia...”.

Elkarteak berak bilduma propio du, eta gero bazkide bakoitzak berea egiten du. Zigiluen edo txanponen bildumak ez dira hala moduz egiten. Serieak osatu behar dituzte. Txanpon edo zigilu solteek ez daukate baliorik. Bestetik, gaikako bildumak egiten dituzte ere, azaldu digu, Heliodorok: “bakoitzak nahi duen gaia edo gaiak aukeratzen ditu (txoriak, loreak, kirolak...) gero esposizio bat egiteko. Beraz, bakoitzak lortu behar ditu gai horren inguruan dauden seiluak eta gero eta zailagoa da”.

Zaletasun garestia

Heliodori galdetu diogu ea elkarteak zein seilu edo moneta bilduma eskuratu nahiko lukeen eta hasperen baten ondoren zera erantzun du: “nahiko genukeena ezinezkoa da, dirutza handia delako. Zaragozako expoaren inguruan atera duten moneta bildumak 200 edo 300 mila pezetatik gora balio du eta ez da garestia. Pieza zaharrak bilatzen hasten bazara... hori bai dela dirutza.

“Sarkozy eta Inglaterrako erreginak munduko filateliako bilduma onenak omen dituzte. Ez dakit hauek gu baino okerrago gongo diren burutik. Baina, bilduma garestienak eskuratzeko gu baino aukera gehiago dutela ziur nago”.

Itziar CARRASCO



Harrijasotzaileak



Estropadak



Pilota

EUSKARAREN 7. MARATOIA

e g i t a r a u a



DANA ONA JATETXEA

- Euskal Herriko sukaldaritza.
- Jangela egoki-egokiak, ezkontzak, jaunartzeak eta beste edozer ospatzeko.
- Etxeko espezialitatea: parrillako arraina eta haragia.

Euskara beti aurrera!

Tel.: 943 365347 / 943 361731 /
Faxa: 943 366020
ZUBIETA (Hipodromoaren ondoan)



Agustin Mujika Euskararen Maratoiaren sortzaile eta zortzikoteko partaide

“Plazan zerbait deigarria egin nahi genuen”

Agustin Mujika, Takolo, Zalbidin bizi da egun, baina asteburuan Lasarte-Oria jaioterrira itzuliko da Euskararen Maratoiko zortzikotean baitago. Aurreneko lauetan egon zen eta ondo gogoratzen duenez “bukaerak beti dira hunkigarriak, hasierak, berriz, beroak...”

Korritzeko modukoa al da 7. euskararen maratoia?

Nik uste baietz, zentzu guztietan. Lehen bezala orain ere bai. Alaitasunez, ilusio handiz,... parte hartzeko modukoa da.

Taldean egiteko kirola da, ezta?

Bai, ahaliik eta jende gehienak, giro onean eta gozatu.

Izerdi asko bota al duzu euskararen alde?

Askotan gertatu zait izerdia botatzea, batzutan korrika atera beharrean ere izan naiz eta.

Eta izerdirik bota beharko da oraindik euskararen alde?

Nik uste oraindik badagoela izerdia bota beharrik. Ari gara. Duela 28 urte eskolako maixua nintzen, garai hartan euskara ikasgaia zen, bost ikasgelatan 140 ume neuzkan, hizkuntza ezin zen asko landu eskolan baina hasi ginen eurekin lanean, satorra irratian, antzerkian, irteerak egiten genituen,... eta pozgarria da gaur egun orduko zenbait ume 40 urte inguruko guraso euskaldunak direla jakitea.

Orduan erreindako haziak eman du fruitua beraz?

Bai eskola hartako irakasle batzuek euskal eskola publikoaren alde ginen. Gose greba bat ere egin genuen Hernanin horren alde.

1986an zure ideia batetik sortu zen maratoia, 2004 nagusi egin zen, beste lau urte pasa dira, nola ikusten duzu sortu eta 22 urtera...

Gogoz nago egungo egoera ikusteko. Alde handia dago, garai hartan hasi zen Udalean Euskara Batzordea, kaleko errotulaziorik ez zen euskaraz, eta beharrezkoa zen zerbait deigarria egitea gure herriko plazan. Irratian entzun nuen Ingle-

“*Etorri, ondo pasa euskal giroan eta lasai igo mikrofonora, zabalik egongo da eta. Pertsonalki nahiago dut hitzari eustea, musika jartzea baino. Politago da jendeak zerbait kontatzea.*”

terran egin zutela antzekoa, mikrofono bat hartu eta 40 ordu isildu gabe. Gure erronka, ideia horretatik abiatuta, 40 ordu etengabe euskaraz aritzea zen.

4. maratoiaren ondoren utzi egin zenuen zortzikotea, 7.ean bueltan zatoz, zer da herri miña? Falta bota al duzu?

Kar, kar. Zalbidian ere sortzen dira bestelako lanak. Pertsona aktiboa izan naiz berez, pertsona aktiboa naiz eta izango naiz. Gogoz nator, agian eskenatokitik zirikatzera ez dut garai bateko zera izango, jende gaztea ez dudalako ezagutzen, baina ezagutzen ditudanak zirikatuko ditut. Seguro.

Oholzatik ere jaitsi zinen,... gogorik bai bueltatzeko?

Urtero egiten ditut horrelakoak, barruan daramat. Barnetegi batean ari naiz lanean haurrekin, irakasle-monitore-animatzaile. Hor inguruan nago, lehen plazan mila banituen orain 25-30 dauzkat. Zalbidiko jaietan ere egin ditugu bi haurrek eta Takolok zenbait sketx.

Maratoiaren ardatza euskara da, ekitaldiak eta parte hartzaileak lotzen dituen. Zein da lorpenik nabarmena?

Herri honetan euskararen esparrua oso murrizta zen eta sentimendu horren inguruan ginenok, nahiz eta

pentsakera politiko ezberdinak izan, elkartu egin ginen, tirabiren gainetik horretarako gai ginela erakutsiz.

Oasi bat al da ospakizuna lau urtetako basamortuan...

Hori ere izan behar du. Aztertzeke gauza da. 40 ordu hor egonda gauza askotaz konturatzen zara, zer jende etortzen den,... Ez da bakarrik zortzikotea, bere inguruan sortzen den mugimendua, elkarlana, garrantzitsua da.

Gogoratzen al dituzu lehenengo euskararen maratoiaren lehen minutuak?

Gauza berria zenez tentsio handia zen. Plazan jarri eta ez genekien jendeak nola hartuko zuen. Ilusio handia genuen.

40 orduko egitaraua osatzen da, hainbeste artista ba al da Lasarten? Artisten herria al da Lasarte?

Harrobi handia dago. 18.000 gara eta nahi ala nahi ez potentzialki artista asko dago.

Erronka moduan sortu zen, 40 ordu baietz, gerora erraz osatu da eta erronka zentzua nolabait galdu da. Noiz arte antolatu beh arko da?

Ez dakit, nik uste aspaldi jada ez zela egingo baina oraindik egiten da. Aurrera goaz. Gainera gauza asko modernizatu da, orain, pantailak dauzkagu,...

Zalbidin bizi zara, bi errealtate oso ezberdinak dira, han 24 ordu euskaraz biziko zara, ezta? Ze hausnarketa egiten duzu bi herrien egoeraz...

Han euskara asko maite dute, baina hemen maitatzen duenak beste balore bat ematen dio. Agian bizi duen inguruarengatik. Ni euskaraz bizi nintzen Lasarte-Orian ere. Dendatan, kafean, irakaskuntzan... Dena den, 17 urte arte ez nekien euskaraz eta lagun asko dut euskararik ez dakiena.

42 kilometro korrika ala 40 ordu euskaraz, zein da neketsuago?

42 korrika egin nituen ia bost ordutan, Donostiako lehenengo maratoian. Hori oso gogorra izan zen fisikoki. Hau ere oso gogorra da. Argi daukat igandean amaitu eta orduan hasiko dela nire maratoia. Normalean lau edo bost egun behar ditut errekupeatzeko, nere onera etortzeko. Deskarga handia da. Aurten ere hainbat sketx landu ditugu.

Zer eskatuko zenioke jendeari?

Parte hartu dezala, guri dena egiten utzi gabe. Etorri daitezela, ondo pasa euskal giroan eta lasai igo mikrofonora, zabalik egongo da eta. Pertsonalki nahiago dut hitzari eustea, musika jartzea baino. Musika egiten duenak bere ekarpena egiten du, baina politagoa da niretzat jendeak igo eta zerbait esatea edo kontatzea.



Jon ALTUNA

I. Urruzola aroztegia

- Era guztietako arotz-lanak.
- Armairu barrenduak.
- Etxe barruko konponketak.
- Parket flotantea.

Oria etorbidea 4, behea (Errekatxo jatetxearen ondoan)
Tel.: 943 371200 / 610 413131
LASARTE-ORIA

Aupa Euskararen 7. Maratoia!

Fernández
e h u n a k

7.enean ere gu Euskararen Maratoiarekin!

Kale Nagusia 2 • Tel.: 943 361607 • LASARTE-ORIA

Euskararen VII. maratokia larunbat goizean goiz abiatuko da, 8:00etan, baina ordurako hainbat beroketa ariketa burutuak dira. Zortzikoteak ondo prestatu du maratokia eta bero-bero dira. Bertsolariek bezperan berotuko dituzte motorrak.

Lasarte-Oriako bikotekako *bertso pinala* larunbatean 23:35ean jokatuko da, baina finaleko bi bikoteak ostiralean arratsaldeko 7etatik aurrera erdiguneko tabernetan zehar egingo den kalejirakanporaketatik aterako dira.

larunbata 18 goiza

8:00
Udaletxean, zortzikoteak lekukoa hartu, eta plazara abiatuko da.

8:10
Maratokia inauguratuko da (txalapartariak, dantzariak, dultzainariak...). Zinta moztu eta bandoa irakurriko da.

8:30
"Musutruk" jolasari hasiera emango zaio.



8:40
"Tariro-tarira Teresategira" kirol-erronkari hasiera emango zaio.

8:45
Eguraldia iragartzeko esketxa.

8:50
Dianari hasiera emango zaio.

9:05
"Baietz 7 aldiz korritu maratokia" kirol-erronkari hasiera emango zaio.

9:20
Adinekoen gimnastika egingo dute Biyak bat jubilatuen elkartekoek.

9:30
Gosaria: txokolate jana.

10:05
Landaberri eta Sasoeta-Zumaburu ikastetxeetako haurren emanaldiak (abestiak, antzerkiak, jolasak...) goiz osoan zehar.

11:30
Piraten tailerra.



Bi kirol erronka izango du aurtengo Euskararen Maratokiak. Herriko korrikalarien "Baietz 7 aldiz korritu maratokia" izenekoan, bi egunetan 42 kilometroko zazpi maratoi egitea da helburu, larunbatean hiru eta igandean lau. Zazpi lekuko prest dira, bakoitza kolore batekoa, eskuz esku pasatzeko. Guztira 294 kilometro osatuko ditu taldeak erronka gauzatzen baldin bada. "Tariro tarira Teresategira" izeneko erronkan orduro talde bat abiatuko da bertara pina buru baten bila. Beraz guztira 40 piñaburu ekarriko dira.

12:45
Amarau: Ezti, Marko eta Lurren bisita.

12:55
"Zazpi jauzi" erraldoia. Mundua mugituko dugu denok batera salto eginda.

13:00
Bonberoekin jolasean arituko gara.

13:05
Trikitalariak.

14:05
Pirata-bazkaria izango da haurrentzat (2 euro. Tiketa erosi behar da).

14:30
Paella-jana (6 euro). Norberak zerbitzatua. Tiketa erosi behar da).



ORIA-TXIKI

- Pintxoak
- Ogitartekoak
- Plater konbinatuak
- Kaxuelitak

Euskararen alde 7. Maratoian!

Zirkuitu ibilbidea 15 • Tel.: 943 370379 • Lasarte-Oria

O T O R D U E N M A R A T O I A

LARUNBATEKO BAZKARI PIRATA

14:00
Haurrentzako bazkaria, paella
(2 euro. Tiketa erosi behar da)
* Bakoitzak berea hartu behar du

LARUNBATEKO BAZKARIA

14:30
Paella jana
(6 euro. Tiketa erosi behar da)
* Bakoitzak berea hartu behar du

LARUNBATEKO AFARIA

21:00
Herrit-afaria
(18 euro. Tiketa erosi behar da)
eta ilunabar erotikoak.

M A R A T O I K O O T O R D U A K

ICANDEKO GOSARIA

08:05
Baratxuri-zopa
(Doan)

ICANDEKO BAZKARIA

14:30
Babarrun jana
(6 euro. Tiketa erosi behar da).
* Bakoitzak berea hartu behar du

ICANDEKO AFARIA

21:05
Txekor jana
(9 euro. Tiketa erosi behar da).
* Bakoitzak berea hartu behar du

larunbata 18 arratsalde

15:05
Praten jolasak.

15:10
"Nihameon" bazkalondoa: Landaberri ikastola 1973an sortu zuen "festibala" atalartuko da, berri.



16:45
Edurne Zuriren eskeka.

17:05
Takolo, Pirritx eta Porroak pailazoak.

18:05
Erromeria gidatua, Joseba Tapiaren eta Egi-zabalardaren eskutik.

19:05
Baitukada, Kuadrilaleoa, bertso-saioa, Parkourra eta Beat-boxa, Mihiluze, dantza eta Lauburu eta Karrotua borobila da musika-taldeak

20:05
Modako desfilea, Nora Izagirren eskutik.

20:30
Dantza garaikidea.

21:05
Herrit-afaria (18 euro. Tiketa erosi behar da) eta ilunabar erotikoak.



Aurten ere larunbat arratsaldean pailazoan bisita izango dugu. Nobedaderik ere bada, pantaila erraldoi bat ipiniko baita. Era digitala gaudenez, Maratonia ere modernizatu egin da. Oholtzan bertan egongo da eta sorpresa ugari ekarriko dizkigu!



larunbata 18 gaua

22:45
Printze" bila eskeka.

23:05
Klik-on antzerkia.

23:25
Modako desfile sexia.

23:35
Labarre-Oriako bikoteakako bertso-pinala.

23:55
Sabel-dantza + lebel-dantza. **035**
Mihiluze erotikoak.

1:20
"Hi bai artista!" emanaldiak: Toni Leblanc, magia, Abba, Nahia-dance...

2:20
"Puzkarra" bikote baten bizitzan" eskeka.

2:30
Zinemaldirako bikoizketak, txobongiloak...

3:05
DJ + bertsoa + Hip-hop.

3:45
Gaueko itzalak. Makuluken eta Aurka musikataldeen emanaldiak.

4:40
Tiarro-bairra Teresategira. Gau-paseroen txanda.

Larunbat gaua, aurtun ere erotiko samarra dator... Agian sukaldari ospetsuren bat atorriko da postrea egitea, edo berriro izango dugu "stripis" saioa, edo erotismoa sortzeko "gauzak" saltzera etorriko dira... edo auskalo!




IVECO
ZERBITZU OFIZIALA
Ordutegiari: 8:00 - 21:00

WABCO
DIMETAL S.A.
IVECO
LOMBARDINI

Euskararen alde
7. Maratona
baterra!

- Kamioen txasia konpontzeko oinarria.
- Industriako ibilgailuen konponketa.
- Aluminizazio eta burdinazko soldadurak.

- Era guztiarako depilazioak
- Aurpegiko tratamenduak
- Gorputzeko tratamenduak
- Makillajeak
- Beste hainbat zerbitzu

Zirkuitu-ibilbidea 6 • 20160 IAS/ITE-01IA • Tel.: 943 361857 • Faxa: 943 366508

MEKANIKAKO TALERRA

Ustin kalea, 2/g • Tel.: 943 370945 • IAS/ITE-01IA

InmoGes
Inmobiliaria
Kale Nagusia 12-3 • Tel.: 943 376662 • IAS/ITE-01IA

Euskararen alde
Maratona



Euskararen alde
7. Maratona

MAITE
ESTETIKAKO ARTEA

Probak ezazu gure laser zerbitzua

Ustin kalea, 2/g • Tel.: 943 370945 • IAS/ITE-01IA

igandea 18 goiza

8:05
Gosaria Okendon (baratxuri-zopa).

8:10
"Eguraldiaren iragarpena" esketxa.

8:30
Diana herriko kaleetan zehar.

8:35
Txistularien bilera erraldoia.

9:20
Txekorra erretzeari hasiera emango zaio (Okela eta Etxezarreta harategiek eskainitako txekorra. Postrea Goiegi jatetxeak eskainia).

9:30
Abesbatza: Biyak Bat jubilatuen elkartekoa.

10:00
Musika Eskolako, Erketz Txikiko eta Landaberriko artista handien emanaldiak. "Zazpi jauzi" erraldoia. Mundua mugituko dugu denok batera salto eginda..

10:05
Artisauen azoka.

10:45
Babarrun-lehiaketari hasiera emango zaio (elkarte gastronomikoak).

11:45
Buruntzako errekor berria jartzeko saiakera egingo du Endika Garziak.



11:55
"Sagardotegietako ibilbidea" ekitaldiari hasiera emango zaio.

12:30
Telleriatar aita-semeak harriak jasotzen ari-tuko dira.

13:01
Herri-kirolen desafioa.

13:25
Babarrun-lehiaketako sariak emango dira.

14:30
Babarrun-jana (6 euro. Norberak zerbitzatu. Tiketa erosi behar da).
Xumela abesbatzaren kantu-emanaldia.



Herri-kirolen desafioan Zabaletako auzoa Kaxkarro auzoaren aurka lehiatuko da. Herriko elkarte gastronomikoek Babarrun txapelketan hartuko dute parte (geroko bazkaria... inori babarrunak ez erretzea espero!) Herriko erdigunean, garai batean zeuden sagardotegien ibilbidea ere egingo da, sagardo eta guzti! Ze uste zenuten ba!

ILLABETA
ITURGINTZA

Iturgintza
Igeltserotza
Berokuntza
Gasa

7. Maratoiarekin euskararen alde!

Denda: Geltoki kalea 21 • Tel.: 943 363147 • LASARTE-GRIA
Tailerra, iturgintza, igeltserotza: Ugaldea polig. 8-1 (Lehenko Moulinex) • Tel.: 943 361752 • USURBIL

igandea 19 arratsaldea

15:35
"Puzkar-txapelketa" esketxa.

15:45
Mus-txapelketa eta Xake simultaneak.

16:05
Pilota-partidak.

16:45
Ipuin-kontaketa.

17:05
Rafafa magoa.

17:30
Kirol egokituari buruz sentsibilizatzeko jardunaldia: pilota-partida egokituak.

17:35
Gure Ametsakoen emanaldia.

17:45
Zezen "corrida"

18:05
Kirol egokituaren erakustaldia, tailerrak.

18:10
Amalur musika-taldea.

19:10
Batukada.

19:35
Lindi hop. Dantza garaikidea.

20:05
"Ezkontza"...

21:05
Txekor-jana (9 euro. Norberak zerbitzatua. Tiketa erosi behar da).

21:50
Txiste-kontalariak.

22:20
"Baietz 7 aldiz korritu maratoia" kirol-erronkari amaiera emango zaio.

22:30
"Eusko irudiak" emankizuna, Erketz, Alboka eta Zero Setteren eskutik.

23:40
"Tariro-tarira Teresategira" kirol-erronkari amaiera emango zaio.



23:55
Azken hitzak.

0:00
Txalaparta.
40. ordua.



Gutxi falta da dagoeneko, baina oraindik geratzen da maratoia gozatzeko.

Magia, musika, kirola, pilota, dantza... Afaldu eta gero, maratoiarri amaiera ederra emateko, Eusko Irudiak ikuskizunaz gozatu ahal izango dugu.



Zubieta Motor, S.L.
(lehen, BLEGA tailerra)

- Taxista eta autoeskolentzako zerbitzua
- Ordezko kotxeak, inolako gasturik eta kosturik gabe
- Eskaintza berezia, era guztietako osagarrietan eta pneumatikoetan

Kotxe berriak eta okasiokoak salgai!



Euskararen alde!

Oria etorbidea 4, 6. lokala
Tel.: 943 376940 / 360009 • Faxa: 943 372689 • LASARTE-ORIA

Bero-bero

Ordu bat hogei ordu
bitzta osoa
norbere izatea
hizkuntzan jasoa
mugitzea da hemen bitzta
eta hitza da pausoa.

*Bero bero euskeraz orain
ta gero,
bero bero maratokia egunero.*

Txiki al gera horren
mundu zabalean
handi egiten gera
mundu apalean
eguneroko maratoiaren
gure herriko kalean.

Hain herri gaztea ta
hain hizkuntza zaharra
bietarako degu
Lasarten indarra
zu ere festa hontan sartzea
da falta zaigun bakarra.

Bero bero...

Haur baten ilusioa
helduaren nahia
eskuz esku hartzeko
badegu garaia
adin guztien jaia delako
Euskerak dakarren jaia.

Bero, bero...

Hitzak: Pablo Suberbiola
Musika: Aitor Atxega

Bizitzari 1000 esker!

Ametsetan mila koloretan,
esnatu kantari dutxapean.
Jantzi, gosaldu famili: Aio, ongi izan!

Kalera noa laralaralara
lan edo parranda egitera,
topo eginez zurekin
hasi da festa!

Muxu ematen diat egunero,
nik hiri ezti, goxo, busti ero bero,
maite haut euskeraz eta bizitzari mila
esker!

Muxu ematen diñat egunero,
nik hiri ezti, goxo, busti ero bero,
maite haunat euskeraz eta bizitzari
mila esker!

Okendo ta ahaten parkean,
Atsobakarren ta Zabaletan,
zabal-zabalik bihotzak
euskararentzat.

Sasoetan, Oriako frontoian
Isla plazan biok igerian,
Hizketan hasi ta segi
MUXUTRUKÉAN!

Muxu ematen diat
Muxu ematen diñat

Hitzak: J. M. Agirretxe eta Lorena Garcia
Musika: Pirritx eta Porrotx



LUIS CAR autobusak

**MARATOIAREKIN
EUSKARAREN ALDE!**



- Espainiako eta nazioarteko garratio-zerbitzuak.
- Enpresentzako, ikastetxeentzako...zerbitzuak.
- 15 plazako microbusak.
- 55 plazako autocarrak.
- Elbarrientzat behar bezala prestatutako autokarrak.

Uzturre plaza 1 Tel./faxa: 943366316 Mobila: 629461897 **LASARTE-ORIA**



Negu honetan,
ahaztu hotza.

ESKAINZA
PAREGABEA

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailerekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpo).

+

KREDIGAS
finantziazio berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan
finantzatzeko.

+

570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,2Sekoa izango da (Credigas). Gaueko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, barmuko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz balatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAIRekin hornikuntza alia egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



**naturgas
energia**

Lasarte-Oria Bai! kros herrikoian parte hartzeko izen ematea gaur irekitzen da

- Ostadar Kirol Fundazioak antolatzen duen krosa urriaren 26an izango da
- Aurten ere, Kros Txikia antolatu dute 5 eta 14 urte bitarteko haur eta gazteentzat

TXINTXARRI

XIII. Lasarte-Oria Bai! Kros herrikoia eta VIII. Kros Txikia aurkeztu zuten Ostadar Kirol Fundazioko ordezkariak, larunbatean Manuel Lekuona Kultur Etxean. Urriaren 26an, igandean, izango da froga eta antolatzaileek aurreko edizio-ko 1.150 korrikalarien kopurua gainditzea espero dute.

Lasarte-Oria Bai! Krosko aurkezpenean krosko arduradunak diren Aitor Azkonobietak eta Idoia Perez, Kutzako Jesus Muga eta Ostadarreko Atletismo taldeko ordezkaria Julen Ollokiegi izan ziren mahaian.

Aitor Azkonobietak aurtengo edizioaren xehetasunak eskaini zituen eta aldaketa handirik egongo ez dela ere aipatu zuen, "helduen karrera urriaren 26an, goizeko 10:30ean abiatuko da Oken-do plazatik. Guztira 10,6 kilometro egin behar dituzte korrikalariak, aurreko edizioetan baino 200 metro gutxiago."

Hala ere, ibilbidean aldaketa txikia egin behar izan dela aipatu zuen. Izan ere, Kale Nagusian egiten ari diren etxebizitzaren lanak direla eta, Berasategiko aldapa jaitsi eta Epelera egin beharrean, Okela harategiko kalekara egin beharko baita Kale Nagusiara iristeko.

Kros Txikia

Nagusien lasterketa amaitzean, 12:00ak aldera, VIII. Kros Txikia hasiko da.

Antolatzaileek bost eta hamalau urte arteko 650 korrikalari espero dituzte. Sei mailatan banatuta, adinaren arabera 100, 150, 400, 800 edo 1200 metroko ibilbideak osatuko dituzte eta bukatzean domina bat eta edateko jogurta jasoko dituzte.



Prensaurrekoan Lasarte-Oria Bai! Krosko lehen dortsala Eulogio de la Sernari eman zioten antolatzaileek.

Txipa erabiliko dute

Izena emateko era desberdinak daude, batetik Ostadarreko egoitzan (Geltoki kalean 25, Michelingo futbol zelaiaren ondoan) egin dezakezue asteleheneetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 11:00etatik 13:00etara, bestetik telefonoz (943360433) edo helbide elektronikoan www.ostadarkf.org. ere inskribatu zaitezke.

Honela, txipa dela eta, izen ematearekin batera, 5 eurotako fiantza ordainduko dute parte hartzaileek eta karrera amaitzerakoan txipa kentzean fiantza bueltatuko zaie.

Inskripzioa zabalik

Izena emateko epea gaur bertan ireki da eta lasterketa egu-

nera arte zabalik mantenduko dute Ostadarrekoek.

Izena emateko era desberdinak daude, batetik Ostadarreko egoitzan (Geltoki kalean 25, Michelingo futbol zelaiaren ondoan) egin dezakezue asteleheneetik ostiralera 17:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 11:00etatik 13:00etara, bestetik telefonoz (943360433) edo helbide elektronikoan www.ostadarkf.org. ere inskribatu zaitezke.

Kros Txikian izena emateko Ostadarreko egoitzan edo herriko ikastetxeetan egiteko aukera duzue: Garaikoetxean, Landaberriko Zubietako erakinean eta Sasoetan. "Eskertu nahi diegu herriko ikastetxei kros txikirako eskaintzen ditugun laguntza eta izen

ematea ikastetxeetan bertan egiteko aukera dagoenez, ikastetxeetan egitea eskertuko genuke", dio Azkonobietak.

Lasarte-Oriatik at bizi direnek 24ra arte ondorengo kirol dendetan inskribatu ahal izango dira: Shanti y Aralar Kirolak (Tolosa), Neresport (Zarautz), Leire Sport (Irún), baita Apalategui, Easo Sport, Roberts eta Laister Kirolak (Donostia).

Lasterketa egunerako uzten dutenek, Michelingo frontoian inskribatu ahal izango dira, 9:00etatik 10:00etara.

Aitor Azkonobietak azpimarratu zuen, "antolatzaileek izen ematea lehen bait lehen egitea eskertuko genuke, honela guztia hobeto antolatzeko beta ematen baitigitute".

Prezioari dagokionez, Lasarte-Oria Bai! Krosen izena ematea alde aurretik egiten duenarentzat 9 euro ordaindu behar ditu, bazkideek 6 eta egunetan bertan 14 (hauek guztiak fiantza konputuan izan gabe) eta, azkenik, Kros Txikiko parte hartzaileek 4 euro.

Korrikalariak mimatu

Aitorrek azpimarratu zuen aurtengo helburua korrikalariak mimatzea eta egun horretan eroso sentitu daitezela izango dela, aurreko edizioetan bezala: "kros honetan parte hartzen duten askok gustura etortzen dira eta errepikatu egiten dute. Eta aurten 1.200 atleta espero ditugu, nahiz eta Donibane-Hondarribi lasterketa egun berean den".

Honetaz gain, Aitorrek Indartuz zentroarekin egin duten akordioa azpimarratu du, "entrenatzeko taulak etab. egiten laguntzen dute" eta hurrengo edizioetan kirolari prestaketa arloan berrikuntzak egongo direla ere aipatu zuen.

Azkenik, eskerrak eman zion babesleei eta, bereziki, bolondres lanak egiten dituzten 160 herritarrei, "hauei alde aurretik eskerrak eman nahi dizkiegu, bere lanari esker krosa egiten delako".

Dorsal banaketa

Ostean, antolatzaileek Eulogio de la Serna korrikalariari 1 zenbakidun dortsala eman zioten. Aitorrek azaldu zuen bezala, "28 aldir parte hartu du Behobia-Donostian, Lasarte-Oria Bai! Kros guztietan ere bertan egon da eta ziurrenik askori bere adinean korrikan jarraitzea gustatuko litzaieke".

Prensaurrekora hurbildu ziren Ostadarreko atletak ere dortsalak jaso zituzten. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Ttakun Kultur Elkartea, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.300 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Egunero

Erakusketa

EUSKARAREN MARATOIAK. Aurreko edizioetako argazkiak eta aurtengo edizioako materiala ikusgai Jalgin, egun osoan.



Asteazkena, 15

Hitzaldia

AITAREN PAPERARI BURUZ arituko da Pilar Seminario psikologoak. Otiak 7ra urteko umeen gurasoei zuzendua. Kulturetxean, 18:00etan. GAZTELANIAZ.

Ipuin-kontalaria

IPIIN BAT IRAKURRIKO DUGU? KOFUKO Zurutuza ipuin-kontalariaren saioa kulturetxeko haurren liburutegian, 18:00etan. EUSKARAZ.



Gracia Querejetaren filma ikusgai asteazkenean kulturetxean

SIETE MESAS DE BILLAR FRANCES filma ikusgai Kutxa Zineko bizitza egitasmoaren barruan. Filma honetan, Angela eta berea semea Guille, hirira egiten dute bidaia Leonen gaitotasuna dela eta (Angelaren aita eta Guilleren aitona).

ASTEAZKENA 15, 17:00ETAN
KULTURETXEAN
GAZTELANIAZ

Osteguna, 16

Hitzaldia

ETXE BARRUKO BORTIZKERIARI BURUZ jardungo da Xabier Arrazola, psikologo klinikoak. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etatik aurrera. GAZTELANIAZ.

Ostirala, 17

Jam sesioa

DINBI DANBA talde izango da gonbidatua Jam sesiora. Bertan jazz-a eta blues-a jotzeko eta entzuteko aukera egongo da. Jalgi kafe-antzekoan, 22:30ean.

Larunbata, 18

Antzerkia

IRUDIMENDEKO HIRIA eskainiko du Gorakada antzerki taldeak haurrentzako zinean. Sarrera 3 euro dira. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan, EUSKARAZ.

Igandea, 19

Zinea

BASOKO ARIMA abentura filma ikusgai haurrentzako zinean. Sarrera 3 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 12:00etan, EUSKARAZ.

EUSKARAREN 7. MARATOIA

Urriaren 18 eta 19an

Animatu eta hartu parte!

Sartu

www.euskararenmaratoia.com

web orrialdean eta eman zure izena!

Kamisetak salgai Ttakunen eta Jalgin.

Izena emateko edo informazio gehiago:

Ttakunen
(Geltoki kalea 4)
edo 943 371448
telefonoan.



Liburutegiko ordutegia

Astelehenerdik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara
eta 17:00etatik 21:00etara
Larunbatetan 09:30etik 13:00etara



Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Esazu irrati programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era.

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Oharrak

1962an jaiotako enafaria

1962. urtean jaiotako lasarte-arrentzat afari bat antolatu dugu Goiegi jatetxean azaroaren 14rako. Interesa duzen guztiek deitu 19:00etatik aurrera honako telefono hauek: Tel.: 672 138855 (Marian)/ 685 775968 (Idoia) /659 950363 (Rexu). Izena emateko azken eguna urriaren 31 izango da. Anima zaitetz!

Eguberrietako loteria

Oztanbide auzo-elkartek eguberrietako loteria salgai jarri duela jakinarazi nahi du, 43.607 zenbakia. Hiru eurotako partizipazioak (loteria 2,50 euro eta emaria 0,50 euro) Txema tabernan (Andapa kalean, Zumaburun) eta Coviran supermerkatuan (Oztaran enparantzan) erosi ahal izango dituzue. Zalantzarako 627818225 (Joseba), 661068301 (Pili) telefonotara deitu.

Katxalin Elkarteak eguberrietako loteria

Bularreko eta Ginekologiako Minbiziagatik Eragindako Gipuzkoako Emakumeen Elkarteak, Katxalinek, gabonetako loteria bidali du Lasarte-Oriako Kontsumitzaileen Informaziorako Udal Bulegora. Loteriaren zenbakia 07.731 da eta txartel bakoitzaren prezioa 3 eurotako da, 0,50 zentimoko emaria Katxalin elkarteko izango da. Loteria hau erosteko interesa dutenek KIUBeko bulegoan bertan erosi dezakete, Ganbo kalean.

Ikastaroa Usurbilgo Lanbide Eskolan

Urriaren 20an Officeko ikastaroa emango da langaberiaren daudenentzat Usurbilgo Lanbide Eskolan. Ikastaroa doan izango da. Informazio gehiago nahi izanez gero edo izena emateko eskolara bertara jo dezakezue.

Lasarte-Oriako Bizilagunen elkarteak

Pintura eta marrazketa ikastaroak hasi dira eta taldeetan lekua dago oraindik. Norbaitek interesa izango balu, izena emateko jo Kultur Etxeko 2. soilairura astelehena, asteazkena eta ostirala 18:00etatik 19:00etara eta larunbata goizetan 9:30etatik 11:30etara

Euskal Inauteriak

Euskal Inauterietako dantza taldea entsaioekin hasiko da urriaren 14tik aurrera, astearte eta ostegunetan arratsaldeko 20:00etatik 21:00etara. Dantza gustokoa duenak edo dantza berriak ikasi nahi dituenak azaldu dadila Landaberri BHI (lehen REM) eraikerina.

Krosseko inskripzioa EHNarekin

Bai Euskal Herriaren taldeak deialdia luzatzen du Loko kross herrikoian inskripzioak

EHNarekin egiteko, inskripzio orrietan aukera hori egongo da.

Biyak Bat elkartearen eskerrak

Lasarte-Oriako Biyak Bat Zaharren etxeak eskerrak eman nahi dizkie Adinduen Omenaldia, Urrezko Ezteiak eta egoitzaren 30. Urteurrenean parte hartu eta lagundu duten elkarte eta pertsonen: Amalur trikitilari eskola eta Jon Lasa, Biyak Bat elkarteak abesbatza, Alboka abesbatza, Zero Sette akordeoi orkestra, Lasarte-Oriako Udala, Caja Rural de Navarra, La Caixa, Kutxa, Caja Laboral eta Zaharren etxeak bolondresak.

Oharrak jartzeko:

Tel.: 943 366858
txintxarri@ttakun.com
Geltoki kalea 4, behe

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943-366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz txintxarri@ttakun.com helbidera bidaliaz. Gure bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Sara Carracelas-ek brontzezko domina eskuratu zuen bizkar igeriketa proban eta gainera S2 mailako munduko errekorra gainditu zuen. Maila honetako munduko igerilari onenetarikoa da beraz.

Denboraldian zehar egindako lanak emaitza onak ekarri dizkie igerilariei paralinpiadetan

Julia Perez Dordoka K.E. taldeko entrenatzailearekin hitz egin dugu aurtengo Joko Paralinpikoen inguruan. Aurten ezin izan du han egon haurdun dagoelako baina bere kirolariek izan duten esperientzia kontatu digu.

TXINTXARRI

Julia Perez Lasarte-Oriako bizilaguna, Dordoka Kirol Elkarteko igeriketako entrenatzailea da duela 15 urtetik. Sidney eta Atenaseko Joko Paralinpikoetan egon da baina aurten Pekinera joateko konbokatuta zegoen arren 7 hilabeteko haurdunaldia dela eta medikuak ez bidaiatzea gomendatu dio. Telebista eta kirolariek bidaltzen zizkioten mezuen bidez jarraitu ditu aurten ospatu diren jokoak baina ez da berdina izan. Pozik dago lortutako emaitzak oso onak direlako eta gainera lan handia egin dutelako denboraldian zehar, baina zirrara eta urduritasun momentuetan kirolariek ezin egotea gogorra izan da.

Kirolari batzuk kanpo

Joko Olinpikoetan parte hartzea ez da gauza erraza. Haraino iritsi ahal izateko kirolariek gutxienezko marka batzuk gainditu behar dituzte eta horretarako gogor entrenatu behar da. Edozeinek ez ditu marka horiek pasatzen eta han egotea hutsa pozgarria da. Juliak komentatu digunez aurtengoa urte bereziki gogorra izan da, Nazioarteko Paralinpikoen Komiteak frogen murrizketa egin duelako eta horren ondorioz ordezkapen

txikia zuten herrialdeetako kirolariek ezin izan dute froga batzuetan parte hartu. Maila altuko urritasuna duten kirolariei eragin die batez ere neurri horrek eta ezin izan dituzte aurreko jokoetan lortutako markak gainditu.

Parte hartzaileak

Espainiako igeriketako selezioan itsuen, elbarritu fisikoen eta burmuineko paralisia dutenen federazioko 39 igerilari egon dira eta guztira 31 domina lortu dituzte, 23 elbarri fisikoek eta 8 itsuek.

Kirolari hauetatik lau eskaldunak dira Sara Carracelas, Richard Oribe eta Arkaitz Garcia burmuineko paralisiko federaziokoak eta Ana Rubio elbarritu fisikoen federaziokoak.

Sara eta Arkaitz Dordoka Elkarteko kideak dira eta Juliarekin aritu dira lanean.

Arkaitzek gogor egin du lan. Bere helburu nagusia jokoetara joan ahal izatea zen eta han noski, ahalik eta marka hobereana egiten saiatu.

Bizkar-igeriketan finalera pasatzen saiatu zen baina maila altua zen. Azkenean, 9. postua eskuratu zuen. Pena diplomatik gabe geratu zela baina lan bikaina egin zuen.

Sara, berriz, lehen aipatutako kirolari kaltetuak bat izan da, ezin izan zuen



Julia Perez izan da Sara Carracelasen prestatzailea.

S2 mailako froga batean parte hartu kirolari gutxi izateagatik.

Denboraldia gogorra izan da Sararentzat egindako lan guztia Joko Olinpikoetan parte hartzeko markak lortzeko entrenatzen aritu delako

eta gero dena bizkar-igeriketako frogan jokatu behar izan duelako.

Froga Joko Paralinpikoen azken egunean ospatu zen eta zaila izan zen urduritasuna kontrolatzea. Norberaren txanda iritsi arte nerbioak pil-

pilean egoten dira eta azkenean egunean lehiatzea tokatzen denean urduritasuna gehiago irauten duela azaldu digu Juliak.

Eta honetaz gain, berarentzat momentu horietan kirolarien ondoan ezin egotea eta dena telefonoz egin behar izatea gogorra izan dela ere aipatu digu. Ez du kontakturik galdu baina tratua ez da hain zuzena izan.

Brontzezko domina

Azkenean emaitza bikaina izan zen Sararena, brontzezko domina eskuratu zuen eta gainera munduko errekorra gaindituta. Honek gaur egungo S2 mailako igerilari onenean bilakatzen du. Izan ere, besteak kategoria desberdinetako igerilariak baitziren.

Julia oso harro dago egindako lanarekin, Joko Olinpikoetara iriste hutsa txalogarria da. Kompetentzia gerok eta handiagoa eta gogorragoa da, urtero kirolari berriak ateratzen dira eta horrek jende gehiagoren aurka lehiatu behar direla esan nahi du.

Gogorrena Juliarentzat kirolarrietatik urrun egotea izan da, etengabe telefonoz informazioa jasotzen egon den arren ez da Sidney edo Atenasen bezala izan, aurten ezin izan ditu bertatik bere kirolariak animatu. •